

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 179/2018 Erabakia, apirilaren 13koa, 2018ko ekitaldian merkataritza sektorea hobetzeko inbertsioak egiteko laguntza deialdia onartzen duena**

Merkataritza sektorea funtsezkoa da, enplegua sortzen duelako eta herri eta hirietako ekonomia eta gizarte jarduerak egituratzen dituelako.

Bai merkataritza sektorean bai ostalaritzan, irisgarritasuna bermatu behar da, modu autonomoan gozatzeko eta erabiltzeko aukera izan dezaten pertsona guztiek eta, bereziki, mugikortasun urria dutenek, komunikatzeko zailtasunak dituztenek edo aldi baterako nahiz behin betiko beste edozein muga psikiko edo sensorial duten pertsonak.

Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen esparruan dago autonomoen erregimenean lan egiten duten pertsonen jardura bultzatzen duten ekintzak eta ekimenak garatzea, bai eta hurbileko merkataritzaren lehiakortasuna handitzea ere.

Arabako Foru Aldundia lankidetzan ari da Arabako Merkataritza eta Industria Ganberarekin, Alerta Goiztiarreko Programak martxan jartzeko saltegietan, eta Txandaketa Programa zerbitzuen sektorean. Alerta Goiztiarreko Programaren bidez lortu nahi dena da saltegiatako arazoak eta arriskuak atzeman eta haiei aurre hartzea; baita ekintza plan bat definitzea ere, negozioaren jarduerarako kaltegarritzat jotzen diren eremuetan benetako aldaketak eragingo dituen. Halaber, Txandaketa Programaren bidez lortu nahi dena da merkataritza eta zerbitzuen sektoreko Arabako enpresen jabeek beren negozioak beste autonomo batzuei eskualdatzea, haien merkataritza jarduerarekin jarraitzeko aukera izan dezaten. Bi programen ondorioz, autonomoek ekipoak berritu edo inbertsio berriak egin behar dituzte, eta horrek diru aldetik ahalegin handia eskatzen die.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak atzeman du landa zonetako saltegi txikiek premia daukabela ekipo informatikoak eta/edo beste elementu batzuk erosi eta berritzeko, haien negozioetan teknologia berriak erabiltzearen ondorioz.

Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez, onarpena eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileei; araudi horrek arautzen ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Zuzendaritzak lehia araubidearen pean ematen dituen dirulaguntzak. Araudi hori martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatu da.

Oinarri horiek onartzearen ondorioz, eta ahalik eta zabalkunderik gehien ematearren eta publikitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, aginduzkoa da ezartzea laguntzetarako deialdia, zeina merkataritza sektoreko autonomoek 2018ko ekitaldian inbertsioak egiteko laguntzen oinarria izango baita.

Aginduzko txostenak aztertu dira,

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2018ko ekitaldian merkataritza sektorea hobetzeko inbertsioak egiteko laguntza deialdi publikoa onartzea.

Bigarrena. Deialdia arautzen dute Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntzak lehiaketa araubidean emateko oinarri orokorrek (Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretua, 2016ko martxoaren 30 asteazkeneko ALHAOn, 36. zenbakia, argitaratua), haren ondorengo aldaketak (martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretua) eta erabaki honen eranskinean xedatutakoek.

Hirugarrena. Ebazpen honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

– Saltegietako irisgarritasuna hobetzeko inbertsioetarako: 150.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2018ko Aurrekontuko 30.5.02.36.01.770.00.02 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105.1216/000).

– Lokaleko teknologia eta ekipamendu fisikoa hobetzeko inbertsioetarako: 40.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2018ko Aurrekontuko 30.5.02.35.03.770.00.01 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105.1215/000).

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2. artikulua betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko lehengo partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatu ditzan, Balorazio Batzordeak hala proposatuta eta ez bada agortzen partida horietakoren bat. Horretarako, ebazpen egokia hartuko du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, baina egintza hau jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta hilabete igaro baino lehen diputatu nagusiaren aurrean aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, egintza hau jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 13a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta*

*Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria*

**JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES**

**ERANSKINA****2018KO EKITALDIAN MERKATARITZA SEKTOREA HOBETZEKO  
INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZA DEIALDIA****1. artikulua. Helburua**

Deialdi honen xedea da 2018ko ekitaldian merkataritza sektorea hobetzeko inbertsio batzuk egin ditzaten.

**2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehienezko zenbateko osoa**

2.1. Ebazpen honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

– Saltegieta irisgarritasuna hobetzeko inbertsioetarako: 150.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2018ko Aurrekontuko 30.5.02.36.01.770.00.02 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105.1216/000).

– Lokaleko teknologia eta ekipamendu fisikoa hobetzeko inbertsioetarako: 40.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2018ko Aurrekontuko 30.5.02.35.03.770.00.01 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105.1215/000).

2.2. Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2. artikulua betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko lehengo partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatu ditzan, Balorazio Batzordeak hala proposatuta eta ez bada agortzen partida horietakoren bat. Horretarako, ebazpen egokia hartuko du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

2.3. Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

**3. artikulua. Erakunde onuradunak**

3.1. Erakunde onuradunak izan daitezke honako hauek:

a) Langile autonomoak, baldin gehienez ere 8 enplegatu badituzte.

b) Sozietate zibilak edo ondasun erkidegoak, gehienez ere 9 autonomoz osatuak.

c) Merkataritza sozietateak, baldin enpresan dituzten partaidetzak autonomoen araubide berezian kotizatzen duten gehienez ere 9 langileri badagozkie (edo araubide orokorrean, kooperatiben edo lan sozietate mugatuen kasuan).

Eskaera bat baino ezingo dute aurkeztu b) eta c) idatz zatietan zehaztutako onuradunek, berdin diolarik autonomo batek baino gehiagok osatzen badituzte erakundeak, eta baldintza hau bete beharko dute: langile autonomoen eta kontratatutako pertsonen baturak ezin du 9 langileko kopurua gainditu.

Erakunde onuradunek gutxienez salmenta puntu bat eta/edo zerbitzu fisikoak eduki behar dituzte Arabako udalerrietako merkataritzarako etxabeetan (Gasteizen izan ezik).

3.1.1. Saltegieta irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak egiteko, erakunde onuradunak sektore hauetakoak izan beharko dira:

– Txikizkako merkataritza eta zerbitzu pertsonalak (honako hauek barnean hartzen dira: ile apaindegi eta edergintza zerbitzuak, bidaia agentziak, arropen konponketa eta gailu elektrikoak eta beste kontsumo ondasun batzuen konponketa).

– Elikadura zerbitzuak jatetxeetan, kafetegietan, tabernetan eta abarretan (kanpo utzi dira asteburuetan gauetz bakarrik jarduten dutenak).

– 20 gela baino gutxiago dituzten ostatu zerbitzuak.

3.1.2. Lokaleko teknologia eta ekipamendu fisikoa hobetzeko inbertsioak egiteko, erakunde onuradunak txikizkako merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen sektorekoak izan beharko dira (honako hauek barnean hartzen dira: ile apaindegi eta edergintza zerbitzuak, bidaiaria agentziak, arropen konponketa eta gailu elektrikoak eta beste kontsumo ondasun batzuen konponketa).

Salbuespenez, 3.1.2. atalaren barruan, onuradunak izan ahalko dira Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak eta Arabako Foru Aldundiak sustatutako Alerta Goiztiarreko Programan eta/edo Txandaketa Programan, biek horretarako sinatutako lankidetzak hitzarmenaren barruan, parte hartu duten edo parte hartzen ari diren erakundeak, Gasteizen egon zein Arabako gainerrako udalerrietan egon, sektore batekoak edo beste batekoak izan, eta duten langile kopurua gorabehera.

3.2. Onuradun guztiek izan behar dute Araban zerga egoitza.

3.3. Kide bihurtzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa eragiten duten erakundeak ezingo dira izan onuradun, hala xedatzen baitu Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan.

Halaber, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexu bereizkeriagatik zehapen administratiboa edo penala jasan duten pertsona fisiko edo juridikoak, harik eta zehapenean ezarritako epealdia amaitu arte, ez eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legea aplikatuz honelako deialdietan parte hartzeko debekua zehapen gisa ezarri zaien ere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskadiko ogasun nagusiaren antolarauari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, 50.5 artikuluan jasotzen duenez, Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean idatzitakoaren arabera.

3.4. Erakunde edo autonomo berak deialdi honetako aurrekontu partida bakoitzerako laguntzak eska ditzake, eta haietako bakoitza zein bere aldetik puntuatuko da. Halakoetan, aurkeztutako eskaera bakoitzerako beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dira.

#### **4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak**

4.1. Proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak diruz lagundu ahalko dira.

4.1.1 Saltegiatiko irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak egiteko, diruz lagungarri izango dira ezinduei saltegiatara errazago sartzeko eta 3.1.1. idatz zatian aipatutako zerbitzuak errazago erabiltzen lagunduko dieten inbertsioak, irisgarritasuna hobetzea xede dutenak.

Araudi honen ondorioetarako, saltegien irisgarritasuna hobetzea izango da egin beharreko hobekuntzak egitea, askotariko dibertsitate funtzionalei loturiko behar bereziak (fisikoak, ikusmenekoak, entzumenekoak, intelektualak eta organikoak) dituzten pertsonak aukera izan dezaten era autonomoan jarduteko lehen aipatutako saltegi eta zerbitzuetan.

Esate baterako, honako hobekuntza hauek:

– Kanpotik barrura sartzea errazteko edo lekualdatze horizontalak eta/edo bertikalak errazago egiteko obrak, komunak, ateak eta igarobideak eta abar.

– Ikusmena, entzumena edo ukimena erabiliz orientatzeko panelak eta/edo euskarriak.

– Tokiak gordetzeko eta/edo lokalizagarritasun obrak.

– Zerbitzuei buruzko argibideak braillez eta/edo bisualki egokituak.

– Berariazko edukiak diseinatzea dieta bereziak dituzten pertsonentzat (liburuxkak inprimatzea ez da sartzeko).

– Web teknologiak, aukera emango dutenak argibideak era autonomoan eskuratzeko eta ezindu guztien dibertsitate iristeko.

Erakundeek Arabako udalerrietako merkataritzarako etxabeetan (Gasteizen izan ezik) dituzten salmenta puntu eta/edo zerbitzu fisikoetan egin beharko dira obrak.

4.1.2 Lokaleko teknologia eta ekipamendu fisikoa hobetzeko inbertsioak bi eratakoak izan daitezke:

a) Hobekuntza teknologikoarekin lotuak:

– Aplikazio informatikoak (softwarea),

– Informazio prozesurako ekipoak eta osagarriak (mahaiko ordenagailuak, eskanerrak, inprimagailuak, salmenta puntuko terminalak, kode irakurgailuak, etiketa sistemak, agenda eta balantza elektronikoak, etab.),

– Teknologia hobekuntzekin loturiko aholkularitza (diruz lagundu daitekeen gehienezko oinarria idatz zati honetan: 700 euro),

– Web-ak diseinatzea.

Dirulaguntza honen xede diren ekipo informatikoak salmenta puntuan egon beharko dira fisikoki kokatuak.

Ez dira joko diruz laguntzeko modukoak ez tabletak, ez telefono mugikorrek; ez informatika ekipoak, ez softwareak, horiek saltzea beren jardueraren barruan duten enpresek eskuratzen dituztenean.

b) Lokalaren ekipamendu fisikoarekin lotuak:

– Lokalak egokitzeko obrak.

– Jarduera garatzeko beharrezkoak diren altzariak eta/edo ekipamenduak/instalazioak.

– Errotuluak, eguzki oihalak eta saretak.

– Marken erregistroa.

– Kanpoko zerbitzuak eta/edo aholkularitza bereziko zerbitzuak.

– Irudi korporatiboa diseinatu eta garatzea.

4.2. Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak eta Arabako Foru Aldundiak sustatutako Alerta Goiztiarreko Programan eta/edo Txandaketa Programan, biek horretarako sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren baitan, parte hatu duten edo parte hartzen ari diren onuradunek baino ezingo dituzte baliatu 4.1.2.b. idatz zatian zehazturiko gastuak.

4.3. Hauek ez dira lagunduko diruz:

– Obrak egikaritzeko proiektuak eta/edo azterlanak.

– Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz 3.1.1. idatz zatia-  
ren barruan irisgarritasuna hobetzen behar beste laguntzen ez duten obra eta/edo jardunen kontzeptuak.

– Merkataritza lokalari dagokion etxejabeen elkarrekin egindako obrak.

– Finantza gastuak.

– BEZa eta errentaren gaineko zerga pertsonalak.

4.4. Baimenduta dago diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea, 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 27. artikuluan ezarritako betekizunak betez gero.

4.5. Ez da diruz lagunduko erostea eskatzailea ez den beste jabe batek lehenago erabilitako ekipoak eta/edo inbertsioak.

**5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epea**

Deialdi honen onuradunak diren erakundeek 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko azaroaren 15era bitarteko aldiari egin beharko dituzte inbertsioak.

**6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak**

6.1. Hona hemen diruz lagundu daitezkeen aurrekontuei aplikatu ahal zaizkien dirulaguntza ehunekoak eta dirulaguntza mugak:

– Saltegietakako irisgarritasuna hobetzeko inbertsioetarako: ehuneko 60, eta onuradun bakoitzeko gehienez ere 10.000,00 euro.

– Lokaleko teknologia eta ekipamendu fisikoa hobetzeko inbertsioetarako: ehuneko 40, eta onuradun bakoitzeko gehienez ere 5.000,00 euro.

6.2. Eskaerak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbateko hau ezartzen da, esleipena egiten den unerako: 250,00 euro.

**7. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

7.1. Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuak, oinarri orokorrak onartzen dituenak, hamahirugarren oinarrian ezarritakoa aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen beste laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira erabaki honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

7.2. Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren horren berri eman beharko zaio, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari, zeinak eskatutako laguntza ukatzea proposa dezakeen.

7.3. Dirulaguntza eskatzen duen erakundeak aurretik beste bat jaso baldin badu helburu bererako, hala adierazi beharko du eskaeran.

**8. artikulua. Prozedura bideratzeko organo eskudunak**

8.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio Batzordea honela eratuta egongo da:

– Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Batzordekidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

**9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

9.1. Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Probintzia plaza, 5, 01001, Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari zuzendu behar zaizkie (Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza); edonola ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, ezarritakoa bete beharko da.

9.2. Eskaerak aurkezteko 30 egun naturaleko epea egongo da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9.3. Erabaki honetan araututako laguntzetarako eskaerak egiteko erabili behar diren ereduak eskuragarri daude Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan -Probintzia plaza 5, 1. solairua, 01001 Gasteiz- eta Arabako Foru Aldundiaren webgunean. Behar bezala eta osorik beteta, sinatuta eta zigilatuta aurkeztu behar dira, eta agiri hauek erantsi behar zaizkie:

a) NANaren fotokopia autonomoen kasuan, eta IFZrena sozietateen kasuan eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez dela egiaztatzen duen agiriak.

b) Inbertsio/jardunen, zeinetarako laguntzak eskatu diren, eskaintzen fotokopia. Aurkeztutako inbertsio/jardunen batek kontratu txikien muga gainditzen badu (50.000,00 euro obretarako eta 18.000,00 euro gainerakorako), eskatutako 3 eskaintzen fotokopia erantsi beharko da ondasuna sartu baino lehen, eta zein eskaintza hautatu den eta zergatik azaldu beharko da.

#### 10. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioesteko irizpideak

10.1. Aurkeztutako jarduerak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera balioetsiko dira:

Inbertsioaren premia: Kontuan izango da zer premia dagoen egitekoak diren inbertsioetarako, eta zer eragin izan dezaketen eskatzailearen lehiakortasuna hobetzean (30 puntu).

Handia	30 puntu
Ertaina-handia	20 puntu
Ertaina	15 puntu
Ertaina-txikia	10 puntu
Txikia	5 puntu

b) Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (gehienez 20 puntu).

Eskaera aurkezterakoan hura osorik egon da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia izan da	20 puntu
Eskaera aurkezterakoan hura osorik egon da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila ertaina izan da	15 puntu
Eskaera aurkezterakoan hura ez da osorik egon, baina geroago osatu da, eta proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia edo ertaina izan da.	10 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	0 puntu

c) Erakunde eskatzailearen langileen plantillaren tamaina. Atal horren barruan, langile autonomoen eta langile kontratatuen arteko batura hartuko da kontuan (20 puntu, gehienez ere).

Plantillan guztira pertsona bakarra duten eskatzaileak	20 puntu
Plantillan guztira 2-4 pertsona dituzten eskatzaileak	10 puntu
Plantillan guztira 5-9 pertsona dituzten eskatzaileak	5 puntu

d) Eskatzailearen jarduera mota (20 puntu, gehienez ere).

Txikizkako merkataritza	20 puntu
Gainerako sektoreak	10 puntu

e) Merkataritza lokala kokatuta dagoen kontzejuaren herriguneko edo udalerriko biztanle kopurua (gehienez 10 puntu).

1.000 baino gutxiago	10 puntu
1.001tik 8.000ra biztanle bitartean	7 puntu
8.001tik 20.000ra biztanle bitartean	5 puntu
20.000 hilabete baino gehiago	0 puntu

10.2. Erakunde onuradunak zehazteko, amaieran hautatzeko eta bakoitzari emango zaion munta zehazteko, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoari men egingo zaio.

10.3. Baldin eta eskaeran sartutako inbertsio eta/edo jardunak, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailaren ustez, ez badira behar bezain lagungarriak saltegiaren lehiakortasuna hobetzeko, partida horiek kanpoan utzi ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko orduan. Era berean, erakunde onuradunak 6.1 idatz zatian ezartzen den diruz laguntzeko moduko gehieneko aurrekontua agortzen badu, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ahala izango da diruz lagunduko diren gastu kontzeptuak zehaztea.

10.4. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak izango du ahalmena erabakitzeke bi aurrekontu partidetatik zeini egokitzen zaion aurkeztutako eskaera, eskaeran bertan adierazitakoa gorabehera.

### **11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena**

11.1. Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, bidezko deritzon ebazpena emango du. Ebazteko epea Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

11.2. Ebazpenak gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko dira. Edonola ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, ezarritakoari jarraituz jardungo da.

11.3. Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, baina egintza hau jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta hilabete igaro baino lehen Foru Gobernu Kontseiluari aurrean aukerako berraztertzeke errekurtsioa jar daiteke, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, egintza hau jakinarazi den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

### **12. artikulua. Dirulaguntza justifikatu eta ordaintzea**

12.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

12.2. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaindu beharra onartzeko, onuradunak ondoko agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2018ko azaroaren 15a baino lehen, egun hori barne:

– Egindako jardunen/inbertsioen memoria. Obrak eginez gero, obren argazkia ere aurkeztu behar da memoriarekin batera.

– Justifikazio fakturen zerrenda, hauexek adieraziz: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkitze epea eta ordainketa eguna, hala badagokio.

– Dirulaguntzaz besteko diru sarrerarik izan bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztuko da.

– Justifikazio fakturak (jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak).

Kontratu txiki gisa ezarritako zenbatekoak (50.000,00 euro obretan edo 18.000,00 euro gainerako kontratuetan) baino gehiago edo haien besteko gasturik izanez gero, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, hautaketa horren justifikazioarekin batera, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, eta justifikazio txostena ere bai, hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, non eta ez den aurkeztu eskaera egiterakoan, gerora gastu erreala kontratu txiki gisa ezarritakoaren beste edo hori baino gehiago izanik.

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukera izango du beste dokumentu batzuk ere eskatzeko, egoki baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.



Profesionalek igorritako fakturei dagokienez, onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, onartu egingo da justifikatu beharreko ordainketa egiteko betebeharra, eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta dagokion justifikazio txostena egitea. Baldin eta egiaztatzen bada egin beharreko atxikipenak ez direla sartu, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.3 Onuradunak lehenago aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren egiaztagiria (banku transferentziak edo laburpenak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren ziguiluarekin) aurkezten dituenean, betiere 2019ko apirilaren 15a (egun hori barne) baino lehen, ordainduko da dirulaguntza.

12.4. Baldin eta 6.1 atalean ezarritako dirulaguntza mugaren bat aplikatu bada, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak txostena egin ondoren, diruz lagundu daitezkeen gastuen murrizketak onartu ahal izango dira, esleitutako dirulaguntzak aldatu gabe. Horretarako, dirulaguntzaren xedea bete behar da eta murrizketa horiek justifikatu behar diren eta diruz lagundu daitezkeen gastuen gutxieneko zenbatekoa bete behar dute. Honela aterako da gutxieneko hori: emandako dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehuneko.

12.5. Ez da onartuko dirutan ordaintzea eragiketaren zenbatekoa, baldin eta 2018ko ekitaldirako indarreko araudian finkatzen den zenbatekoa bada edo handiagoa edo haren kontrabaloa atzerriko monetan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

### **13. artikulua. Garapena**

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru ebazpen hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onar dezan.

### **14. artikulua. Azken klausula**

Erabaki honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri arautzaile orokorretan eta haren ondorengo al-daketetan (martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretua) ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, araudia onartzen duena, baita dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak ere.